

## “Kotoizko kamiseta bat egiteko, 15.000 litro ur behar dira”

Alberto  
Fernández

WWFko aditua  
uraren gain

Antza herritarrak ez dira ohartzen zenbateko ur pila erabiltzen den ondasunak eta zerbitzuak sortzeko eta inportatzeko. Espainiako Estatuaren aztarna hidrikoa bosgarren handiena da munduan, halaxe nabarmendu du Alberto Fernandezek, WWF erakunde kontserbazionistak uraren arloan daukan adituak (kontsumitzeko eta ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko erabiltzen den ur bolumenak zehazten du aztarna hori). Gainera, ibaien %60k kutsadura handia edo oso handia dute, eta Espainian da biztanle bakoitzeko presa gehien duen herrialdea munduan: 1.231 ditu guztira, horrek haran eta ibaietan dakartzan ondorioekin.

**Zergatik du Espainiak hain aztarna hidriko handia?** Nekazaritzak ur guztiaren %80 erabiltzen du. Bestalde, ez dago kontsumo kulturarik uraren inguruan, nahiz eta ondasun urria izan, oso merkea izan delako. Hautes-kunde helburuekin ere erabili izan da. Bada garaia ikuspegi teknikitik eta zientifikotik begiratzeko.

**Nekazaritzan al dago gakoa?** Bai. Nekazaritzarako laguntza gehien jasotzen duen bigarren herrialdea gara Europako Batasunean, 8.000 milioi euro inguru. Zati handi bat sail ureztatueta bideratzen da, zeinak gero eta ugariagoak baitira: 3,2 milioi hektarea ingurukoak.

**Horrek nola eragiten die kontsumitzaileei?** Kontsumitzaileek kalitatezko ura dute, baina ez dakite aztarna hidrikoaren berri. Kotoizko kamiseta bat egiteko, 15.000 litro ur baino gehiago behar dira; haragi kilo bat ateratzeko, 25.000 litro. Gainera, elikagai asko alferrik galtzen dira, eta horrekin ur asko ere bai, ongarriak, energia... FAOk egindako kalkuluen arabera, egun ekoizten diren elikagaiekin hamabi milioi pertsonak jan dezakete. Zazpi

milioi inguru gara, eta bi milioi inguruk gosea pasatzen dute. Banaketa arazo bat da, hori konpontzeak ura hobeki erabiltzen ere lagunduko luke.

**Kotoizko kamiseta bat erosita ur gehiago xahutzen al dugu etxeko txorrota irekita utzita baino?** Jakina. Kotoia ureztatu egin behar da, eta zenbait prozesutatik igaro behar du garbitzeko, tinduak emateko...

**Ur Hornikuntzaren eta Saneamenduaren Espainiako Elkartearen iriziz, kontsumitzaileei tasa handi-  
goak ordainarazi behar litzaizkieke horniduraren kalitatea bermatzeko.**

Udalerrri txikietan edo penintsulako hego-mendebaldean bai, baina beste batzuetan ez litzateke beharrezkoa, adibidez, Madrilan, Bartzelonan eta ipar-ekialdeko lurraldeetan.

**Nolako ingurumen arazoak sortzen dira Espainian ura dela medio?** Espainiak 700 eta 800 araztegi inguru behar ditu ibaietako uraren kalitatea ez dadin izan orain bezain txarra, Europako Batzordeak dioenez. Ibaien %60k kutsadura handia edo oso handia dute, Ibai-arroen Plan Hidrologikoetako azken azterketek esaten dutenez. Europak eskatzen du 2015. urtea baino lehen bermatu behar dela ibaien egoera ona. Kasu askotan ez gara iritsiko. Gobernuak lehentasuna eman behar lioke ura arazteari.

**Europak isuna jar al diezaioke Espainiari?** Bai, ibaietan, lakuetan eta urtegietan bainua hartzeko uren kalitateagatik bezala.

**Kontsumitzaileek nola aurreztu dezakete ura?** Bi erabileratako tanga edo deposituekin eta aurrezteko gailuak jarrita txorrotetan, zeinak brikolaje denda guztietan saltzen dituzten eta %40 aurrezten duten; hortzak garbitzean txorrota itxita; sukaldeko urari probetxua aterata; lorategietan tantakako ureztatze sis-

temak ezarrita; eta, batez ere, aztarna hidrikoaren kontzientzia hartuta eta ur gutxien behar duten produktuak kontsumituta.

**WWFk asko azpimarratzen du urtegiak ingurumenean duten eragina ere.** Kontsumo handiak behartu egiten du ura urtegietan biltzera, eta azpiegitura horiek aldatu egiten dituzte ibaiak eta urpean uzten dituzte emankorrak diren ibar asko. Biztanle bakoitzeko presa gehien duen herrialdea da Espainia, eta guztira presa gehien dituztenetan hirugarrena. Toki batzuk, Tajoren behe arroa, adibidez, urtegi segida bat dira. Ez da gehiagoren beharrik, eta desagerrarazi egin behar lirateke zahartuta geratu direnak edo erabiltzen ez direnak, ibaiak berezko egoerara itzul daitezten. Euri asko eginda ere, ez daiteke gehiago bildu. Ongi kudeatzea da kontua.

**Ba al da arriskurik herritarrei zerbitzu txarra eman diezaieten edo hornidura eten?** Levanten eta hegoaldean ura falta da. Ura gezatzea irtenbide bat da, baina energia berriagarriak erabili behar litzuzke, eta, batez ere, kontsumoa murriztu eta eraginkortasuna handitu. Era horretan hobeki aurre egingo litzaieke lehorteei, baina gure politikariak ez dira batere ahalegintzen.

**Botilako uraren kontsumoa handitu egin da azken urteetan. Merez al du gastu hori egitea?** Botilakoa iturrikoa baino 450 aldiz garestiagoa da. Une jakinetan soilik dauka zentzua, bidaian goazela adibidez, edo ume txikiekin gaudela. Iturriko uraren kalitatea bermatua dago Espainia guztian. Besterik da zaporea ez gustatzea. Madrilgo ura munduko onenen artean dago. Jendeak pitxerretan eskatu behar luke ostatueta edo jatetxetara doanean.

